

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Maria Lourdes Lasarte Dorronsoro*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1926)*

Aurkibidea



## Biografia



Parte Zaharrekoa, Portu  
kalean bizi izan zen 22  
urterekin Lekeitiora ezkondu  
zen arte. Gurasoek Flores  
izeneko taberna-jatetxea  
zuten hantxe bertan. Ama  
Lazkaokoa zen, baina oso  
umetatik bizi zen Donostian;  
Casa Nicolasan ibili zen  
lanean, eta sukaldari ona zen.  
Aita Flores baserrian jaio zen;  
hark ere bazekien sukaldean,  
Parisen ikasi zuelako. Maria  
Lourdes San Bartolomera  
joan zen eskolara, mojetara.  
Erdaraz ikasten zuten, baina  
ba omen zegoen moja bat  
eskola orduetatik kanpo  
euskara erakusten zuena.  
Ahizpa bakarra du, bederatzi  
urte gazteagoa, baina etxean  
jende gehiago ere bizi zen:  
jatetxean lan egiten zuten  
neskak eta bi lehengusu.  
Koadrilan ibiltzen ziren  
gaztetan; futbola, zinema eta  
estropadak gustatzen  
zitzaizkien. Lekeitioan zazpi  
seme-alaba izan zituen;  
umeak txikiak zirela -gazte  
alargundu zen Donostiara  
buelatu zen bizitzera, Parte  
Zaharrera.

## Zintak

### DON-027

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-06
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Agirre, Eli - Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Igogailu gabe ere konforme, lehen

- **Erref:** DON-027/002
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:03:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena:**

Kanpandegi kalean jaio zen, baina urte eta erdira Aingeru kalera joan ziren bizitzera. Eguzkiak jotzen zuen etxe hartan, eta aurrekoan ez. Igogailurik ez. Eskailera estuak. Ama 90 urterekin hil zen, eta inoiz ez zen eskailerengatik kexatu.

**2. Kalderan bainatzen ziren, txandaka**

- **Erref:** DON-027/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:03:21. **Bukatu:** 00:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena:**

Taberna jatetxe bihurtu zenean, neskak hartu zituzten zerbitzatzeko; etxean egiten zuten lo denek. Berak izebarekin egiten zuen lo. Ez zegoen bainurik; astero kalderan bainatzen ziren, txandaka. Maindireak Igeldoko baserri batera eramaten hasi ziren gero.

**3. Moilako labaderoa**

- **Erref:** DON-027/004
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:07:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Moilan labaderoa non zegoen. Emakumeak kaldera buru gainean zutela joaten ziren hara. Beraiek bodegan zuten aska handi bat. Sagardo denboran hortxe garbitzen ziren botilak.

**4. Flores baserriaren historia**

- **Erref:** DON-027/005
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:07:39. **Bukatu:** 00:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Bi ahizpa ziren. Baina lehengusuak ere beraiekin bizi ziren, bi mutil; Flores

baserrikoak. Flores zaharraren jabeak Loiolako kuartelekoak ziren; hantxe bizi ziren aitona-amonak. Sei seme-alaba izan zituzten; zaharrena Ameriketan hil zen. Besteak Flores-berrira joan ziren bizitzera, seminario gainera. Osaba geratu zen han.

## 5. Izebak denda zuen Urbieta kalean

- **Erref:** DON-027/006
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Izeba bat baserrian geratu zen eta beste izebak dendatxo bat jarri zuen Urbieta kalean: La Bella Donosti; uniformeak saltzen zituen. Lehengusuak geratu ziren dendan.

## 6. Lehengusuak, Muñoaren eskolan

- **Erref:** DON-027/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

Lehengusuak beraiekin bizi ziren, baserria urruti zegoelako. Muñoak jarritako eskolan zebiltzan. Kanpandegi kaleko eskolarekin zer gertatu zen; falangeak hartu zuen eta gerora Orixe ikastola jarri zuten.

## 7. Eskolan erdaraz; etxean euskaraz

- **Erref:** DON-027/011
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:16:11. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

### Laburpena:

San Bartolomera joan zen eskolara, beraiekin bizi zen izebarengatik. Erdaraz ikasten zuten. Moja batek bere kasa ematen zuen euskara, programaz kanpo. Moja arduradunak kanpotarrak ziren. Etxean aita oso abertzalea zen; euskaraz ez bazioten egiten, ez zuen erantzuten.

## 8. Ahizpa, lehenengo andereñotakoa

- **Erref:** DON-027/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

Ahizpa jaio zenerako giroa ez zen hain itxia. Ahizpa lehenengo andereñotakoa izan zen; ikastola jarri zuen etxean, Elvira Zipitriarekin ikasita. Santo Tomas lizeoan egin zuen lana gero.

## 9. Tabernako giroa, bera umea zela

- **Erref:** DON-027/016
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:26:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

Bera jaio orduko aitaren eta osabaren tabernak martxan zeuden. Arrantzaleak egunero joaten ziren, eta bakoitzari bere litro laurdeneko botila ateratzen zioten. Basoerdiak hartzera ere joaten ziren. Zahagietatik betetzen zituzten botilak.

## 10. Taberna jatetxe bihurtu zen

- **Erref:** DON-027/017
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:28:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Neskameak

### Laburpena:

Taberna jatetxe bihurtu zen pixkanaka. Ama sukaldari ona zen, Casa Nicolasan ikasia. Aita mostradorean egoten zen, baina Parisen egona zen sukaldaritza ikasten.

## 11. Ama, Lazkaokoa; nolatan joan zen Donostiara

- **Erref:** DON-027/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:28:31. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Lanbideak » Neskameak

#### **Laburpena:**

Lazkaon jaioa zen ama, baserritarra; hiru anaia Donostiara joan ziren igeltsero, eta etxeko lanak egiteko eraman zuten, bederatzi urterekin.

### **12. Bulebarrean jolasean**

- **Erref:** DON-027/021
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### **Laburpena:**

Umetako jolasak: Kromoak, txingoak, buleka, kaniketan. Bulebarrean lehengusuekin elkartzen zen, eta pilotarekin ibiltzen ziren jolasean. Toki ona zuten horretarako.

### **13. Bulebarra nolakoa zen; kafetegi handiak**

- **Erref:** DON-027/022
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:37:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

#### **Laburpena:**

<p>Zebrabideak jarri zituztenekoa. Bulebarra nolakoa zen; kioskoa ez zegoen oraingo tokian (ikus mapan). Tranbiak. Kafetegiak: La Marina, Cafe Oriental. Abenidan ere bazeuden kafetegiak. Animatzailea zuten Orientalean. Igandetan lehengusuak izebarekin joaten ziren kafetegira. Kanpotarrak zein bertakoak joaten ziren, gizonezkoak emakumeak baino gehiago.</p>

### **14. Jatetxeko langile gehienak emakumeak**

- **Erref:** DON-027/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:37:39. **Bukatu:** 00:39:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

#### **Laburpena:**

Jatetxean karta izaten zuten. Udan lan asko egiten zuten, kanpotarrekin; neska bat gehiago hartzen zuten. Bestela, ni neska izaten ziren zerbitzatzen, eta sukaldean beste bi, amari laguntzeko. Iruritako bi ahizpa izan ziren urte askoan beraien jatetxean lanean.

## 15. Zinemara eta futbolera; Realeko jokalaria

- **Erref:** DON-027/026
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Zinema

### Laburpena:

Denbora librean, zinemara. Konstituzio plazan txistua izaten zen, baina ez ziren dantzazaleak. Futbolera joaten ziren; Realeko sozioak ziren. Realeko jokalaria ezagunak zeintzuk ziren orduan: Epi, Perez, Patri, Izagirre atezaina... Entrenatzaileak. Elizondotarrak.

## 16. Zinemara, eta ondoren kafetegira

- **Erref:** DON-027/028
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:44:14. **Bukatu:** 00:45:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

Zinemara western-ak ikustera joaten ziren batez ere. Novedades aretoa, 15:30eko emanaldia. Pareko kafetegian futboleko emaitzak jartzen zituzten, eta irtendakoan hara joaten ziren. Edozer gauzarekin disfrutatzen zuten, eta orain ere bai.

## 17. Umetan, Gaztelura; Lekeitiora ezkondu zen

- **Erref:** DON-027/029
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:45:46. **Bukatu:** 00:48:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

<p>Gaztelura ere joaten ziren. Apaizen pasealekuan askotan egoten ziren. Merienda eramaten zuten. Kuadrillan joaten ziren, neskak, normalean neskame batekin. Mutilekin askoz geroago hasi ziren. 22 urterekin ezkondu zen, Lekeitiora. Senarraren familiak ontziola zuen han, eta arrantzan ere ibiltzen zen anaiarekin. Tabernako bezeroak ziren, eta hala ezagutu zuen.</p>

## 18. Hondartzako arauak

- **Erref:** DON-027/030
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:48:11. **Bukatu:** 00:50:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

### Laburpena:

Hondartzara ere joaten ziren. Goizean nahiko goiz bainatzen ziren, eta etxera, laguntzera. Neska-mutilek ezin zuten elkarrekin paseatu hondartzan; mutilek kamiseta eraman behar zuten eta emakumeek gonadun bainujantzia.

## 19. Erlijioaren pisua; senargaien arteko harremana

- **Erref:** DON-027/032
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

### Laburpena:

<p>Dena bekatua zen, eta batzuek oso gaizki pasatu zuten. Beldurra pasarazten zieten. Infernua. Senargaiari musu ematea normala zen, baina harreman sakonagoak ez. Lagunek irratia oparitu zioten ezkondu zenean.</p>

## 20. Erosketak, janari dendak eta garraioa

- **Erref:** DON-027/035
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:55:14. **Bukatu:** 00:59:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

<p>Ama joaten zen jatetxerako erosketak egitera, Bretxara. Etxera eramaten zizkieten. Janari dendak. Olio bidoietan ekartzen zuten. Moilan Rezolaren karga-ontziak ezagutu zituen; trena moilaraino sartzen zen.</p>

## 21. Kaiko giroa; emakumeen lana

- **Erref:** DON-027/036
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:59:05. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

### Laburpena:

Kaiko giroa. Arraina gizonak ateratzen zituzten ontzitik, eta emakumeek jartzen zituzten kaxetan. Emakumeen lanak: arraina gatzarekin jarri, sareak konpondu... Mugimendu handia zegoen. Arrantzaleek aldaba jotzen zuten batzuetan, haragi eske, presaka zebiltzanean.

## 22. Gerrako oroitzapenak I

- **Erref:** DON-027/037
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:01:00. **Bukatu:** 01:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

<p>Hamar urte zituen gerra etorri zenean. Orduko oroitzapenak. Sirenak jotzean, bodegara jaisten ziren. Etxean ez zuten zoritxarrik izan, baina gauza txar asko entzun zituen. Osaba bat izan zuten Hendaian, zinegotzi nazionalista zelako.</p>

### Transkripzioa

- Eta, gerra etorri zanian, zu txikiya ziñan...
- Bai, hamar urte, hamar urte.
- Baiña, gogoratzen dezu zerbait, badezu...
- Bai, "por ejemplo", gogoratzen naiz, sirena jotzen zuenian, ba jeixten giñala denak bodega. "Abioiak badatoztela, abioiak badatoztela!" ta, geo Kanarias sartu dala bonbardeatzea, hor Paseo Berrin atzean, edo barkua, Kanarias, deitzen zan ta. Denak bodega, ta han eoten giñan, pues, gu ez giñan asko kontuatzten baiño, bueno, hantxe bodegan. Ta berriz'e sirena jotzen zuenian, ba ya "pasa da, pasa da" ta hola. Ta gauza oain, entzunak bai gauza asko, era batekuak eta bestekuak, entzunak bai. Gauzak asko entzuten zian, baiño ez diozu ematen, umetan, benetan zuen garrantziya. Gero, ez da berdiña, etxean zerbait pasa bazaizu, edo entzuten badezu, ez da berdiña. Ta guk suertea hortan izan genun, etxean ez genun izan, zea, gurasoak eta hori ez genun izan. Etxe askotan gurasoak falta izan zian, eaman zittuelako, edo gerrara jun ta han geldittu zialako. Guk hortan izan genun...
- Ihesi jende asko jun zan, Donostiatik kanpora, ezta?
- Bai, guk osaba bat euki genun Hendaian, baiño, bakarrik esaten zuenez, gerra hasi zanean, aiuntamentuko kontzejala zala, ta nazionalista nola zan ba, jun baiño, hola persekuzioa esateko... Ta geroztik ikusi dittugun gauzak eta garai hartan ikusi zian, nik baditut lagunak eta, aita, etxea etorri billa "¿Fulano de tal?", hartu ta eaman ta kitto. Ta klaro hori gertatzen bazaizu etxean, pues "a ver", nahiz umea izan, ta umea baldin bazea oaindi gehio.

Guk etxean, hori, suerte hori izan genun, ez zitzaigun tokatu. Baiño inseguridade sensazio hori bai, korrika "de repente" kalean jendea. Eta "Zer da?", bai, pistoleruak etorri ziala ta, batek tiroa ta bestek eskiñan ta, inseguridade haundiya, o akaso umea ziñala ta ikaratu egiten ziñala. Baiño, ez, ez, etxean entzuten zenittun gauzakin ez zan ume kontua bakarrik.

## 23. Gerrako oroitzapenak II

- **Erref:** DON-027/038
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:03:56. **Bukatu:** 01:06:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

<p>Loiolako kuartelekoek zer egingo ote zuten, kezka zegoen etxean. Nazionalak noiz sartu ziren. Etxean ez, baina inguruan sufrimendua ikusi zuen; hainbat ezagun Santoñan preso hartu zituzten.</p>

### Transkripzioa

- Eta gero, pues ya, hemen berehala sartu zian, ni akordatzan naiz entzuten nula etxean, gerra hasi zanean, ta umea, ta curiosidadea daukazu, beti belarria jarrita, ez? Ta, ez zakiela Loiolako kuarteletakoak ze alderditara joko zuen. Hori zan hemen joku haundiya, nik entzuten nun kontuk e, ta gero ya, idatzi ya, eo geo irakurri dedan gauzak hori beste gauza bat da. Baiño garai hartako sensazio hori nik etxian hori sentitzen nun, "Ze ingo ote du?", Carrasco uste det zala ordun, uste det izen hori entzuten nula, "Aber ze itten dun horrek, zeatikan, alde batea jotzen badu edo bestea, segun ta, jun beharko ote deu ta ez ta". Ta behintzat uztaillian hasi zan gerra, ta iraillian ya etorri zian nazionalak. Ordun hemen Franco garaia bizitu izandu deu, hemen, hemen e? Zenbait etxetan ondorio gogorak izan zian, eta... Adibidez, nere lehengusun senarra, ta nere lagunan beste senarra ta hoiek denak Santoñan eondu zian preso, "pena de muerte"kin, Elosegitarraikin ta hoiek kuadrillakuak zian. Eta nere suhiñan, "o sea", nik alaba bat daukat ezkontuta, ta nere suhiñan aita ere hor egondu zan, Santoñan, "pena de muerte"kin. Eta hoiyek pasa zuen pasa zuena. Oain nik esaten dizutenian, etxian-etxian garai hartan, pues, aita, ama hoiek dituzu referente direktoak, ez? Ta bi ahizpa bakarrik ta lehengusuak ere ez zuten izan... Baiño inguruan bai, inguruan bai.

## 24. Estraperloa eta errazionamendua

- **Erref:** DON-027/039
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:06:01. **Bukatu:** 01:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

<p>Gerraosteko estraperloa. Haragia eta ogia, jatetxerako, trenez. Arriskua zegoen harrapatzeko, baina beste erremediorik ez zuten. Ezkondu zenean, errazionamendua zegoen, eta kupoiekin ibili ziren hoteletan ere, kartilarekin. Andaluziara joan ziren.</p>

### Transkripzioa

- Gerra ta gero gose garaia izan zan, razionamendua eta, horrek ze eragin izan zuen zuen jatetxian?
- Pues, adibidez, gure jatetxean... Nola esango nuke?... Erdera ateatzen zait: "había que exponerse" zuk lanean egin behar bazenun, estraperluan sartu behar zenun. Ta estraperluai esker zeukazun haragia ta ogia, adibidez. Baiño estraperluan, zakutan disimulatuta ta, ez dakit, baserritik eo, kostako trenetik nunbait, makinista bat edo ekartzen zuna haragia ta estraperlopean.
- Isilpeko, orduan, eta beldurrez...
- Bai estraperloan, oin harrapatzen baziñuen ba, harrapatu zizuen, inspektoreak eta izaten zian ta. Ordun ba, harrapau in baziñuen ba pagatu in behar ta, aurrea baiño lana in behar bazenun in beharra zeon, ezin dezu, ezin zenun bestela ein. Ta gaiñeakuan ba bizimodu normalean, ni ezkondu nintzanean, "por ejemplo", bidaia in genun ta kupoiakin hotelean ta, bazkaltzeko ta, kartillak genitun ta kupoia entregatu ta, kupoian orde z ematen ziguten bazkaria hotelean ta jantokitan ta jun behar genun tokitan.
- A bai e? Ezin zan diruakin ezin zan erosi, kupoi hori...?
- Ez, kupoia, kupoia.
- Kupoirik ez bazenun ezer, ezin zenun....
- Dendetan ta klaro eongo zan, dendetan ta kafeteritan ta hola eongo zan. Baiño gu jun giñan kartillakin ta kupoiakin, jun giñan.
- Ta nora jun ziñaten zuek?
- Andaluzira, ta guretzako zan, bueno, "Miami Beach"!
- Orduan ez zan asko bidaiatzen?
- Ez, ez...

## 25. Lehen bidaia handia, Bartzelonara

- **Erref:** DON-027/040
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:07:56. **Bukatu:** 01:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

<p>Donostiatik ez ziren oso urruti joaten: Lasartera, Andoainera... Behin Bartzelonara joan zen izebarekin, dendarako telak erostera, trenean. Gurasoak Bilbora joan ziren ezkon-bidaian.</p>

### Transkripzioa

- Zuek, Donostiatik irteten ziñaten?
- Ni, ordun atera nintzan, orduntxe, atera nintzan, bai.

- Orduntxe, eta inguruko herrietara ere zer, ezertara?

- Bueno, Lasarteaiño ta Hernaniraiño, ta hemen inguruan bai, baiño hemen etxen. Bartzelonara izebakin, jun nintzan, bai, eta zan gaiñea, esan dizut bi ahizpak zutela, denda, tela-denda. Bueno, uniformeak eta zittuztela. Eta ordun, ez zeon erosteik hemen telarik, eta hola Bartzelonan egiten zittuzten. Eta izeba jun zan, erosketak, bea, oso garbosa eta fuertea zan gure izeba, eta beakin biaje bat ein nun, bea Bartzelona jun zan telak eta erostea ta beakin in nun biaje hori. Beai lagundu, jun-etorria.

- Gauza haundiya izango zan, ez, biaje hori?

- "Hombre", bai, pues bai, bai. Neretzako izan zan oso...

- Trenian jun ziñaten?

- Bai, trenen. Trenen jun, ta han bere erosketak egin, fabriketa ta juten zan, hua oso "decidida" ta zan izeba. Ta fabriketa ta juten zan bea, ta gizonezkuakin ta hola, zeatzen zun, "de tú a tú" esaten dan bezela. Hori da lehenbiziko biajea, lehenbiziko biaje, irteera hori izan zan. Baiño beida, hor ere ze aldaketa izan zan. Gu ordutik honea ai gea esaten, e? Baiño "por ejemplo" nere gurasoak ezkondu ta biajea in emen zuten Bilbora. Pues beida, ta zeuden hoiek "pues eso" ezkon biajea Bilbora.

## 26. Jantzera eta orrazkera

- **Erref:** DON-027/042
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:12:32. **Bukatu:** 01:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

### Laburpena:

Jantziak jostunak egiten zituen; Urbietara kalera joaten ziren beraiek, bi ahizparengana. Modari begiratzen zioten. Soinekoa mahukekin, galtzerdiak. Orrazkerak: etxean ruloak, eta noizean behin ile-apaindegira.

## 27. Baserritarren joan-etorria Parte Zaharrean

- **Erref:** DON-027/043
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:15:34. **Bukatu:** 01:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrira » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrira vs. Kalea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

### Laburpena:

<p>Baserritar asko joaten zen Parte Zaharrera, zaldi-karroekin eta astoekin. Asto kalea. Igeldotik karroarekin. Lehengusuak (Ameriketara hil zen osabaren alaba) esnea eramaten zien Flores jatetxera. Marmita utzi eta txerri-jana jasotzen zuen.</p>

## 28. Ospakizun handietan, jatetxean lanean

- **Erref:** DON-027/045
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:19:00. **Bukatu:** 01:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

### Laburpena:

Ospakizunak: San Sebastian eguna, Ama Birjina bezpera eguna... Izeba bere bila joaten zen, baina aitak ez zion uzten. Lana egitea tokatzen zen. Angulak prestatzen zituzten, San Sebastian egunean. Aste Nagusian karta zegoen, baina San Sebastian bezperan menu jakina zegoen: angulak eta haragi errea.

## 29. Jatetxeko zerbitzua eta hizkuntzak

- **Erref:** DON-027/046
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:23:05. **Bukatu:** 01:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

### Laburpena:

Lehenengo jatetxeetan zerbitzu hobea zegoela uste du, arreta handiagoa jendearekin. Turista asko izaten zen; haiekin, erdaraz. Behin militar bat sartu zitzaien sukaldara, "hable en cristiano" esanez. Lagun artean euskaraz, lagun abertzaleak zituelako.

## 30. Trafiko urria; hiria ere txikiagoa zen

- **Erref:** DON-027/048
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:26:03. **Bukatu:** 01:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

### Laburpena:

<p>Lagunak bizikletan ibiltzen ziren, baina berak ez du ikasi. Alokatu egiten zituzten. Normala zen neskak bizikletan ibiltzea. Automobila gutxi zuten. Tranbian ibiltzen zen jendea. Trafiko gutxi. Jende gutxiago ere bizi zen: Amara Berri auzoa ez zegoen. Grosen etxe gutxi zeuden, eta tailer asko.</p>

### 31. Txofreko zezen plaza eta zaldi lasterketak

- **Erref:** DON-027/049
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:29:38. **Bukatu:** 01:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### Laburpena:

<p>Txofreko zezen plaza non zegoen. Tarteka joaten zen, baina gutxi. Zezenetara zihoazenei begira egoten ziren: "manolak", peinetekin... Erdiko zubira joaten ziren. Kapelak zaldi lasterketetan erabiltzen ziren gehiago. Hara ere joan izan da.</p>

### 32. Herri-kirolak eta arrauna

- **Erref:** DON-027/050
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:31:55. **Bukatu:** 01:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

#### Laburpena:

<p>Herri-kirolak: aizkolariak, sega, pilota... baina ez zuten afizio handirik. Arraunerako bai, amorratuak ziren horretan. Estropadetan apustu gogorrak izaten ziren. Oraingo giroa ezberdina da.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-11-23*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com